



**Datuak Babesteko
Euskal Agintaritza**

**Autoridad Vasca de
Protección de Datos**

Korporazio-estrategia

DBEAREN PLAN ESTRATEGIKOA



**Datuak Babesteko
Euskal Agintaritza**
Autoridad Vasca de
Protección de Datos

DOKUMENTUAREN AURKIBIDEA

1	HITZAURREA	6
1.1	XEDEA	6
1.2	IKUSPEGIA.....	7
1.3	INDEPENDENTZIAREN PRINTZIPIOA	8
2	PLAN ESTRATEGIKOA APLIKATZEKO TESTUINGURUA	11
3	1. ARDATZA – DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZA: AGINTARITZA PROAKTIBOA.	17
4	2. ARDATZA – DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZA: AGINTARITZA GARDENA	22
5	3. ARDATZA – DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZAREN LEGE BERRIRA EGOKITZEA	26
6	4. ARDATZA – HAINBAT SEKTORETAKO ESPARRUETAN EGIN BEHARREKO JARDUERA	28
7	ARRAKASTA-ERAGILE NAGUSIAK	32

1. Hitzaurrea



1 HITZAURREA

Azken hamarkadetan ezin konta ahala aldiz errepikatu da gaur egungo gizartea zeharo digitalizatuta egonik datuak babesteko eskubidea behar bezala babestea berebiziko eragilea dela pertsonen euren nortasuna askatasunez garatu ahal izan dezaten. Beraz, ez dago zertan azpimarratu eskubide horren garrantzia.

1.1 Xedea

Datu pertsonalak babesteko eskubidea oinarrizko eskubide autonomoa da, ordenamendu juridikoan nahiz gizartean oro har sendotuta dagoena. Alde batetik, garrantzi handiko arau batzuek beren-beregi hartzen dute aintzat eskubide hori, esate baterako Europar Batasunaren (EB) Funtzionamenduari buruzko Itunak, 16. artikuluan, eta EBko Oinarrizko Eskubideen Gutunak, 8. artikuluan. Bestetik, agerikoa denez, herritarren artean gero eta interes handiagoa pizten du eskubide horren babesak. Egoera hori egiaztatzeko, ikusi besterik ez da egin behar gora egin duela kontrol-agintaritzetan egindako erreklamazioen kopuruak¹ edo hedabideetan gero eta maizago ikusten direla eskubide horrekin zerikusia duten albisteak. Horren arrazoia da, neurri handi batean, gaur egun zabal dabilela Interneten eta antzeko tresnen erabilera. Eustatek dioenez, 2022an 15 urtetik gorako biztanleriaren % 86,3k Internet normaltasunez erabiltzen zuen, eta 15 eta 24 urte bitarteko adin-tartean kopuru horrek % 100era arte gora egiten du. Gaur egun ez da auzitan jartzen eskubide hori, eta gai horri buruzko eztabaiden ardatza da esparru batzuetan eta besteetan zein den eskubide horren norainokoa. Hori hala da, neurri handi batean, kontrol-agintaritzak independenteek sentsibilizaziorako nahiz kontrolerako egindako lanari esker.

Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren (DBEA) xedea da pertsonak babestea, ente publikoek haien datuen tratamendua egiten dutenean. Horretarako, Agintaritzak hainbat jardura egiten du, besteak beste eskubideak babestea, arau-hausteen espedienteak instruitzea, jardunbide onak zabaltzea, ente publikoei aholkua ematea eta abar.

¹ Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren kasuan, 2017. urtean 40 salaketa aurkeztu ziren; 2022an, aldiz, 75. Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren kasuan, adibidez, erreklamazioen kopuruak % 46,5 egin du gora 2020az geroztik. AEPDren Memoria, 2022.



1.2 Ikuspegia

Euskadin, urteen joan-etorrian, DBEAK funtsezko zeregina izan du datuak babesteko eskubidea sendotzen. 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren bidez sortu ondoren, zalantzarik gabe DBEAK berebiziko zeregina izan du sektore publikoaren digitalizazio-prozesuan lagun gisa, esparru publikoan datuak tratatzeko moduari buruz interpretazio irmoa taxutu baitu apurka, baita arauak behar bezain zehatzak ez zirenean ere. Datuak babesteko arau orokor berriak onartu dira, bai Europan, hain zuzen ere Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (2016/679 (EB) Erregelamendua) eta 680/2016 Zuzentaraua (pertsona fisikoak babestearen gaineko zuzentaraua, agintari eskudunek arau-haustea edo zigor penalak prebenitu, ikertu, detektatu edo epaitzeko asmoz datu pertsonalak tratatzeari buruz eta datu horiek aske zirkulatzeari dagokionez, eta Kontseiluaren 2008/977/JAI Esparru Erabakia indargabetzen duena), bai estatuan, hau da, 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa eta 7/2021 Lege Organikoa, arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa. Orduz geroztik, DBEAREN zeregina funtsezkoa izan da ente publikoei arau horiek aplikatzeko orientabidea ematean eta arau horiek bete daitezela kontrolatzean. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren lana aipagarria izan da, kontuan hartuz gero arau-esparru berriak datuen babesa ulertzeko modu berria ekarri duela; izan ere, eginbehar berriak sortu ditu (Tratamendu Jardueren Erregistroak, Datuak Babesteko Ordezkaririk...), baita eskubide berriak ere, lehen existitzen ez zirenak edo arauetan berriaz aintzatesten ez zirenak (ahaztua izateko eskubidea, kasu).

Orain arte egindako lana abiapuntu harturik, Agintaritzak helmuga gisa egoera bat jartzen du zeinean pertsonak konturatzen baitira datuak babesteko eskubidearen garrantziaz. Egoera horretan, halaber, ente publikoek jardunbide onak garatzen dituzte datu pertsonalen tratamenduan, eta herritarren artean konfiantza sortzen dute; pertsonen eskubideak errespetatzen dira, eta ente publikoen eraldaketa digitala ahalik eta berme guztiekin egiten da.



1.3 Independentziaren printzipioa

DBEA agintaritza independentea da, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidearen bermatzailea; zeregin hori indartzera etorri da esparru arauemaile berria, eginkizun eta ahal berri ugari esleitu baitizkio. Eginkizun eta ahal horiek guztiak garatzeko aukerak dira A), datuak babesteko araudi autonomikoa esparru juridiko berrira egokitzea, batez ere Agintaritzaren antolaketa eta funtzionamendua arautzeari dagokionez eta, B), plan estrategiko bat garatzea, kontrol-agintaritzaren ekintzaren ildo orokorrak ezartzeko.

- A) Datuak babesteko arau autonomikoak aldatu behar dira, eta behar horri aurre egiteko onartu da Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren Lege berria. Agintaritzak bere jarduerarako erabili beharko dituen irizpide nagusiak lege horrek ezartzen ditu. Legearekin batera, garrantzitsua izango da Agintaritzaren Estatutuaren proposamena egitea, lege-esparru berria aplikatzearen ondorioz sortutako beharrian berrietara egokituta.

- B) Plan Estrategikoa, berriz, herritarrak nagusiki jomuga dituen tresna da. Eta herritarrez gain, DBEAK kontrolatzen dituen enteak eta DBEAn bertan lan egiten duten pertsonak ere ditu xede Plan Estrategikoak. Herritarrak, datuak babesteko eskubidearen –Agintaritzak zaindu behar duen eskubide horren– titularrak direlako. Plan honetan DBEAREN ekintza-bide nagusiak egituratu nahi dira, batez ere herritarrak eskubide horren garrantziari buruz sentsibiliza daitezten, eta herritarrek jakin dezaten zein tresna dauden eskura beren datuekin egiten dena modu aktiboan kontrolatu ahal izateko. Euskal sektore publikoa osatzen duten enteak, Agintaritzaren kontrol- eta prebentzio-eginkizunen mendean dauden subjektuak direlako. Askotan errepikatzen den ideia da, baina ezin da ahaztu sektore publikoak datu-kopuru handia tratatzen duela bere eginkizunak betetzean, eta askotan datu horiek kontuz erabili beharrekoak direla. Garrantzi handikoa da enteek ahalik eta modu zorrotzenez errespetatzea datuak babesteko eskubidea. Herritarrez eta ente publikoetz gain, plan estrategiko honen xedea DBEAKo langileak beraiek dira, plana bete ahal izan dadin langileek konpromisoa hartu behar baitute planarekin berarekin, beren eginkizunak ardurarik handienaz betetzeaz gain.



Araudi berriaren nahiz Plan Estrategiko honen helburua da independentziaren printzipioa sendotzea, printzipio horrek geroago DBEAren antolaketan eta funtzionamendu arruntean agertu beharko baitu. Horren haritik, enteak ahalmena izan behar du bere bitartekoak kudeatzeko eta bere eginkizunak independentziaz betetzeko.

2. Plan Estrategikoa aplikatzeko testuingurua



2 PLAN ESTRATEGIKOA APLIKATZEKO TESTUINGURUA

Gaur egun, datuak babesteko eskubideak erronka berriak dauzka aurrean. Egoera halakoa izanik, plan estrategiko bat landu behar da, sektore publikoan autodeterminazio informatiborako oinarritzko eskubideak gaur egun duen testuinguruaren eragileek bultzaturik. Plan estrategiko hau irakurtzean, arestian azaldu ditugun inguruabarrak gogoan izan behar ditugu ezinbestean.

1. Datuak babesteko eskubideak une erabakigarria bizi du gaur egun. Orokorrean, agerikoa denez, teknologia berriak abiadura handian garatzen ari dira eta, askotan, ez dago ongi definituriko tresna juridikorik erronka berriei berme guztiekin aurre egiteko. Inguruabar horien erakusgarri handiena Adimen Artifiziala (AA) da. Aspalditik da ezaguna, baina azken urteotan dimentsio berriekin erabiltzen ari da; ez da erakusgarri bakarra, ordea: izan ere, harira ekar liteke neuro-eskubideek dakarten eztabaida, edo zibererasoen gorakadak agerian jartzen duen eztabaida².

Gizartean gertatzen ari den eraldaketak ondorioa du, zentzuzkoa denez, sektore publikoan.

A) Lehenengoz, gero eta zabalago erabiltzen ari diren teknologia berri horiek gero eta sarriago txertatzen ari direlako ente publikoen antolaketan eta funtzionamenduan (aipa ditzagun hainbat kasu: adimen artifiziala medikuntzaren esparruan erabiltzea, gaixotasun mota jakin batzuk aurreikusteko helburuz, edo bideozaintzako sistema batzuk eta besteak hainbat xedetarako erabiltzea, adibidez herritarren segurtasuna zaintzeko, trafikoa kontrolatzeko...). Administrazio publikoen eraldaketa digitaleko prozesuak aurrera jarraitzen du eta hori gero eta argiago ikusten da bai barneko esparruan bai herritarrekiko harremanetan. Eustaten 2022ko azken datuetan ikusten denez, sektore publikoaren arlo batzuek eta besteek digitalizazio-maila handia dute, bai ekipamenduei dagokienez, bai digitalizatutako prozedura eta zerbitzuei dagokienez. Herritarrek ere gehiagotan erabiltzen dituzte tresna horiek, nahiz eta kopuruak bereziki handiak ez izan.

² BCSC-k agerian jarri du egoera hori azken urteotan.



B) Eta bigarrenez, administrazio publikoen eraldaketa-prozesua hainbat fenomenoren mende dagoelako, prozesuaren garapena baldintzatzen eta bultzatzen duten fenomeno batzuen mende, alegia:

- ✓ lehenengoz, azken urteotan, eta bereziki COVID-19aren pandemiaren garaian esanguratsu bilakatu ziren inguruabar sozioekonomikoek behartuta, Estatuaren izaera soziala finkatu delako, batzuetan zabalago, bestetan ez hainbeste; horren ondorioz, sektore publikoak eginkizun gehiago hartu behar izan ditu bere gain, herritarrak babesteko. Jakina, gauzak horrela, zerbitzu berriak eman behar dira, prozedura berriak izapidetu eta, horrenbestez, datu eta informazio gehiago tratatu.
- ✓ bigarrenez, harreman juridiko-publikoak ulertzeko modua ere aldatu delako. Herritarrek «Administrazio hobea» eskatzen dute gero eta gehiagotan, EBko Oinarrizko Eskubideen Gutunean aitortzen den administrazio onerako eskubide hori aldarrikaturik. Administrazio gero eta hurbilagoa izango litzateke, administrazio gardena, herritarren parte-hartzea sustatzen duena; halako Administrazio batek, ezinbestean, pertsonen eskubide subjektiboak errespetatu beharko lituzke, eta ezer baino lehen, datuak babesteko eskubidea errespetatu;
- ✓ azkenik, teknologia berriak hizpide izanik, errealitatea gero eta konplexuagoa delako eta, horren indarrez, administrazioek beren antolakuntza egokitu egin beharko dutelako aldaketa horietara. Administrazio-organo berriak sortzen dira, baita ente berriak ere, nortasun juridiko propioarekin, administrazio publikoen espezializazio-prozesu saihestezin horri erantzuteko. Horren adibide argi bat da Euskadin Euskal Zibersegurtasun Agentzia sortu izana (7/2023 Legea). Administrazio-arloko ente eta organo berriak sortzen direnez, era berean, informazio-sistema berriak sortu behar dira, datuen fluxuak bideratzeko, bai administrazioaren barnean bai administrazioen artean, fluxu horiek joriak baina seguruak izan daitezten.

Eraldaketa-prozesu hori azken urteotan azkarrago dabil bizitzaren esparru guztietan, baita sektore publikoan ere eta, horregatik, datuak babesteko eskubidearen garrantzia gogoan izan behar da uneoro. Ideia hori azpimarratu behar da, eskubide hori arauetan finkatuta dagoelako –Europar Batasun osoan ere bai–baina, horrez gain, sektore publikoaren legitimitate sozialak berak oinarrizko eskubideen errespetua eskatzen duelako. Hori une



honetan bereziki garrantzitsua da, nazioarteko egoera politikoan gaur egun ikusten baita herritarrek arlo publikoari buruzko konfiantza galdu dutela, estatistiketatik ondorioztatu ahal denez. Jakina, sektore publikoan datuak nola tratatu behar diren erabakitzerakoan, DBEAK garrantzi handiko zeregina dauka, irizpide ziurak eman behar baititu, segurtasun juridikoa bermatze aldera. Segurtasun hori onuragarria da, pertsonak administrazioen funtzionamendu onari buruzko konfiantza izan dezaten.

2. Datuen babesari buruzko eztabaidak zein testuingurutan egingo diren aztertzerakoan, beste eragile erabakigarri bat da azken urteotan arlo honi buruzko arau berriak onartu direla, Agintaritzak arau horiek azertu eta interpretatu behar baititu, baita halakoak nola aplikatu behar diren zehaztu ere. Horren adibide argia dira arau garrantzitsu batzuk, adibidez 7/2021 Lege Organikoa, arau-hauste penalak prebenitu, detektatu, ikertu eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa, 203/2021 Errege Dekretua, Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onartzen duena, Euskadiko 91/2023 Dekretua, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa, edo 2/2023 Legea, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena. Etorkizun hurbilean, arau horiei batuko zaizkie Europar Batasunaren esparruan izapidetzen ari diren beste batzuk, Adimen Artifizialari edo Osasun Datuen Europako Esparrua sortzeari buruzkoak; garrantzi handiko gaiei buruzkoak, azken batean. Arau horiek aplikatzeak datuen tratamendu berriak bideratu beharra dakar, eta DBEAK horiek azertu beharko ditu, baita horiei buruzko irizpidea ezarri ere.

3. Sektore publikoan datuak babesteko eskubidearen edukia eta mugak interpretatzeko modua baldintzatzen duen hirugarren eragilea COVID-19aren pandemian geratu zen agerian. Pandemiaren aurka eta pandemiaren ondorioen aurka borroka egitean ikusi da garrantzitsua dela sektore publikoan datuen tratamendurako sistema egokia edukitzea. Lehenengoz, argi geratu delako garrantzitsua dela sektore publikoak interes publikoa zaintzeko dauzkan eginkizunak betetzea eta ahalak modu arin eta efikazean egikaritzea eta, horrez gain, komenigarria dela horretarako era berean informazio-sistema arin eta efikazak edukitzea, elkarri konektatutako sistema elkarreragingarriak. Bigarrenez,




eztabaidaren ardatzean auzi zehatz bat jarri duelako: ea beharrezkoa den datuen titularren adostasuna edukitzea administrazioek euren eginkizunak betetzeko datuen tratamenduak egin ditzaten.

DBEAren zeregina funtsezkoa izango da irizpide zehatz batzuk ezartzerakoan, erabakitzeko administrazioek, beren helburuak betetze aldera, nola tratatu ahal dituzten herritarren datuak, arauak aldeztatik diotenaren mende, eta horrez gain herritarren artean kontzientzia pizteko, kontura daitezkeen ente publikoek haien datuak erabiltzen dituztenean justifikazio bat dagoela, hau da, interes publiko nabarmenak lortzea.

4. Datuen babesari buruzko gaur egungo eztabaiden eremua zedarrizterakoan laugarren eragile bat ere kontuan hartu behar da: gaur egun, sektore batzuetan eraldaketa handia gertatzen ari da edo teknologia berrien eragin berezia jasaten ari da; horretarako azterketa berezia ere egin behar da, eta agintaritza-kontrol independente batek berariazko ekintzak egin behar ditu. Adibidez, buruan ditugu zenbait arlo, hala nola osasuna, segurtasuna edo hezkuntza, halakoak banaka aztertzea merezi baitu. DBEAk berebiziko zeregina dauka arlo horietan, herritarren datuak modu berezian egoten baitira tartean.



Eragile horiek guztiak oso garrantzitsuak dira datuen babesari buruz gaur egun dagoen eztabaida ulertzeko; gainera, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak datozen urteetan izango duen jardute-eremua zedarritzeko baliagarriak dira. Testuinguru hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren jarduerak lau ardatz nagusi izango ditu: proaktibotasuna; gardentasuna; esparru juridiko berriari egokitzeko beharrezana; eta, gaur egungo egoeran kontu handiz jorratzekoak diren esparru batzuetan jardun behar izatea.



3. 1. ardatza – Datuak Babesteko Euskal Agintaritza: Agintaritza proaktiboa



3 1. ARDATZA – Datuak Babesteko Euskal Agintaritza: Agintaritza proaktiboa

Orain arte, kontrol-agintaritzen zeregina gehienetan zehatzeko ahalarekin edo datuen titularren eskubideen babesarekin lotu da, hau da, irregularra izan daitekeen datu-tratamendu bat egin ondoren egikaritzen diren ekintzekin. Eginkizun horiek funtsezkoak dira. Hala ere, horiek bezain



garrantzitsuak dira kontrol-agintaritzek *ex ante* egin beharrekoak, irregulartasuna gertatu aurretik prebentzio modura egin behar dituztenak, alegia. Kontuan izan behar da DBEO onartzeaz batera paradigma aldatu egin zela datu pertsonalak babesteko moduan, eta proaktibotasunaren alde egin zela; beste modu batean esatearren, erregelamenduaren bidez tratamenduaren arduradunak behartuta daude datuen babeserako posible den guztia egitera eta arduraz jokatzera. Kontua da eztabaidaren gunean jartzea datuak hasieratik – informazio-sistematik diseinatzen direnetik– babesteko neurriak hartu beharra. Jakina, horretarako, kontrol-agintaritzek lan handia egin behar dute; sensibilizatu, informatu eta aholkua nahiz prestakuntza eman, pertsonen datuak behar bezala babesteko moduari buruz, xedea herritarrak nahiz tratamenduaren arduradun eta eragileak direla. Berebizikoa da azpimarratzea DBEAK urteen joan-etorrian zeregin garrantzitsua izan duela sensibilizatzeko eta prestakuntza emateko, bai gizartean orokorrean, bai sektore publikoan bereziki. Datuak babesteko eskubidea gaur egun zabal-zabal aintzatesten da, neurri handi batean hain zuzen ere kontrol-agintaritzak egin duen lan horri esker. Eginkizun horietan sakontzea beharrezkoa da, aintzat hartzen badugu teknologia berriek nolako erronkak jartzen dizkiguten aurrean. Zeregin horiek Agintaritzak orain ere betetzen ditu, baina garrantzi handiagoa eman beharko litzaieke.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (EB) 57. artikuluan kontrol-agintaritzei esleitzen dizkien eginkizunen artean daude honako hauek: «b)publikoaren sensibilizazioa bultzatzea eta tratamenduaren inguruko arriskuak, arauak, bermeak eta eskubideak ulertaraztea (...); c)aholkularitza ematea, estatu kideetako zuzenbidea betez, parlamentu nazionalari, gobernuari eta beste instituzio eta erakunde batzuei, tratamendua dela-eta pertsona fisikoen eskubide eta askatasunak babesteko neurri legegile eta administratiboei buruz; d)tratamenduaren arduradun eta eragileen sensibilizazioa bultzatzea,



erregelamendu honen indarrez dituzten betebeharrei buruz; i) interesgarriak diren aldaketen jarraipena egitea, datu pertsonalen babesean eragiten duten neurrian, bereziki informazioaren eta komunikazioaren teknologien alorrean eta merkataritza-jardueretan».

Horren guztiaren indarrez, kontrol-agintaritzek eta, zehazki, DBEAK, proaktiboak izan behar dute datu pertsonalak babestean. Horretarako, honako jarduketa hauek egin behar dituzte:

A) 1. jarduketa: Euskadiko sektore publikoa osatzen duten enteekin prestakuntzako eta aholkularitzako planak egitea, ente horiek baitira datu pertsonalen tratamenduaren arduradun nagusiak eta, era berean, DBEaren eginkizunen mende daudenak. Jarduera hori orain ere egiten ari da, baina Agintaritzak arreta handiagoa jarri beharko du horretan. Horri gagozkiola, garrantzi handikoa da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin daukagun harremana mantentzea eta sendotzea, bai eta euskal sektore publikoko enteetako datuak babesteko ordezkarietara ekintza-ildoak lantzea. Helburua ez da bakarrik DBEako langileen ezagutza orokorrean transferitzea ente publikoetan datuak tratatu behar dituztenei, baizik eta, horrez gain, ente horiei aholkua ematea beren eginkizunak egikaritzean erabili behar dituzten informazio-sistemak diseinatzeko eta aplikatzeko;

B) 2. jarduketa: datuen babesaren arloko ikerketa-jarduera sustatzea. Datuen babesa eta, orokorrean, teknologia berriei dagokien guztia, etenik gabe aldatzen ari den gaia da; horrenbestez, agente batzuek zein besteek ikerketa-jarduerak egin behar dituzte, arlo horri buruzko ezagutza eguneratzeko. Agintaritzak berak ikerketa-jarduera egin dezake, arlo honetan araua eta/edo jurisprudentzia interpretatzeko moduari buruz berriazko irizpide propioak ekarriz, baina, horretatik harago, Agintaritzak sustatu beharko du zeregin horretan diharduten operadorerik garrantzitsuenek –unibertsitateek, alegia– ikerketa egin dezaten. Harreman zuzena bideratu behar da euskal unibertsitateekin, bereziki Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta, horren barruan, gure interesekoa den arloari lotutako tituluak –graduak zein graduondokoak– ematen dituzten fakultateekin. Datuen babesari buruz gradu amaierako lanak, master amaierako lanak eta, batez ere, doktorego tesiak egitea zeharo garrantzitsua da behar bezain sakonak diren ekarpen interesgarriak aurkitzeko, esparru juridikoa ahalik eta ondoen aplikatzeko lagungarriak izango badira.



Administrazioen digitalizazioarekin, datuen babesarekin, berrikuntza teknologikoarekin edo antzeko arloekin zerikusia duten lantaldeetan edo ikerketa-proiektuetan parte hartuz ere ikerketa-jarduera sustatzea dago.

Helburu horrekin, DBEAk garrantzi handia izan duten sari batzuen deialdia egin du, ikerketa-jarduera ere saritzeko. Sari horiek oihartzun handiagoa behar dute gizartean, eta horretarako interesgarria izan daiteke zabalkunde handiagoa ematea, baita zuzkidura ekonomiko handiagoa ere;

C) 3. jarduketa: sentsibilizazio-kanpainak bultzatzea. Gaur egun, gizartearentzat DBEA ez da ente ezezaguna, eta egia da sektore publikoak haren lana balioesten duela eta herritarrek, orokorrean, gero eta hobeto ezagutzen dutela. Dena dela, Agintaritzak sendotu egin beharko du datuen babesaren arloko sentsibilizazio-eginkizuna, bai herritarrak sentsibilizatzeko, bai datuen tratamenduen arduradun diren enteak sentsibilizatzeko. Herritarren kasuan, datuak babesteko oinarrizko eskubidea zein garrantzitsua den kontura daitezen, eta eskubide horren edukia nahiz eskubide hori babesteko eskura dauzkaten tresnak ezagutu ditzaten. Eta, baita ere, jakin dezaten administrazioek haien datuak arauen arabera erabiltzen dituztela, interes publikoko xedeetarako eta berme guztiekin. Datuen tratamenduaren arduradunen kasuan, ohartarazteko zein garrantzitsua den pertsonen datuak babesteko eskubidearen errespetua, ez soilik arauak betetzeko, baizik eta sektore publikoa gizartean legitimatzeko ere bai. Ildo horretatik, ezinbestekoa da:

- ✓ alde batetik, hedabideekin harreman iraunkor bat, ez bakarrik unean-unean interes sozialeko arazoak sortzen direnean;
- ✓ bestetik, Agintaritzak sare sozialak erabili behar ditu, herritarrengana modu efikazean heltzeko;
- ✓ azkenik, funtsezkoa izango da ekitaldiak, mintegiak edo biltzarrak antolatzea, herritarren datuak tratatzen dituztenak sentsibilizatzeko (eta batez ere haiek sentsibilizatzeko), eta gainera helburu horrekin sortutako foroetan parte hartzea;
- ✓ gizartearentzat orokorrean antolatutako sentsibilizazio-kanpainez harago, adingabeei zuzendutako kanpainetan arreta berezia jarri beharko da, datuak babesteko daukaten eskubidea balioetsi dezaten eta eskubide hori Interneten babesten ikasi dezaten baina, horrez gain, teknologia berriak ongi erabiltzen ikasi dezaten.



D) 4. jarduketa: komunikazio-kanal arinak eta seguruak sortzea euskal sektore publikoko enteekin eta ente horietako datuak babesteko ordezkariekin, modu azkar eta efikazean jarduteko, adibidez gerta daitezkeen segurtasun-urraketen aurrean. Egoitza elektronikoaren bidez edo beste edozein bitarteko elektronikoren bidez hainbat tresna bideratu beharko da DBEA ezagutzera emateko eta harekin harremanetan jartzeko.

E) 5. jarduketa: zirkularrak, jokabide-kodeak eta jarraibideak onartzea datuen babeserako arauak interpretatzen laguntzeko, batez ere sektore batzuen eta besteen esparruetan, herritarren nahiz arau horiek aplikatu behar dituztenen segurtasun juridikoa bermatzeko. Datuak babesteko eskubidea zaintzean proaktiboa den Agintaritza bat sendotzea funtsezkoa da une honetan, arlo honetako araudiak datuen tratamenduaren arduradunei datuen babesean diseinutik abiatuta modu prebentiboan jarduteko eskatzen baitie.

4. 2. ardatza – Datuak
Babesteko Euskal
Agintaritza: Agintaritza
gardena



4 2. ARDATZA – Datuak Babesteko Euskal Agintaritza: Agintaritza gardena

Behar-beharrezkoa da DBEA gizartean ikusgai egotea, pertsonentzat ente irisgarria izatea eta, gainera, herritarrek DBEAren funtzionamendua nahiz antolaketa eta hartzen diren erabaki guztiak, baita interes soziala dutenak ere, ezagutzea. Xedea da EBko Oinarrizko Eskubideen Gutunean aitortzen den administrazio onerako eskubidea egikaritzea, Agintaritzari aplikatuta eta, horretarako, zenbait jarduera egitea.



A) 1. jarduketa/ikusgaitasuna: DBEAk gorago azaldu diren eginkizunak –funtsean sentsibilizazioa eta prestakuntza– garatuko baditu, garrantzirik handieneko eragileetako bat izango da gizarteko esparru jakin batzuetan ezaguna izatea, zein esparrutan eta DBEAk bere eginkizunak beteko dituen horietan.

- ✓ Lehenengoz gizartean, orokorrean, herritarrek DBEA badagoela eta eginkizun batzuk dituela kontura daitezten. Horretarako, kontrol-agintaritza ezagutzera eman ahal duten tresnak bultzatu behar dira (sare sozialak, hedabideak, web orria).
- ✓ Bigarrenez, administrazioetan, administrazioek jakin dezaten zein irizpideri jarraitu behar dioten datu pertsonalen datuen tratamenduan, zein diren arlo horretako jardunbiderik onenak, eta komunikazio-bide azkarrak sortu ditzaten zalantzak argitzeko, oharrak egiteko, pertsonen eskubideak arriskuan dauden egoerak ezagutzera emateko, eta abar.
- ✓ Hirugarrenez, datuen babesaren arloan interes bereziko jarduerak egiten dituzten entitateetan. Horri gagozkiola, gogoan dauzkagu unibertsitateak edo, horiez gain, zuzenbide publikoko korporazioak, eta horien artean lanbide-elkargoak, adibidez.

B) 2. jarduketa/Irisgarritasuna: administrazio independente bat «ona» izan dadin, administrazio horrek ematen dituen zerbitzuek irisgarriak izan behar dute erabiltzaileentzat. Tresna egokiak sortu behar dira, herritarrek eta datuen babeserako araudia bete behar duten enteek modu erraz eta arinean eskura izan ditzaten zerbitzu horiek eta Agintaritzan



izapidetu ahal diren prozedurak, eta eskura izan ditzaten euren eskubideen egikaritzapenerako agiri normalizatuak ere, bai eta irizpenak, gidak eta ebazpenak eta abar.

C) 3. jarduketa/Gardentasuna: DBEAK bete behar dituen maximetako bat da gardentasuna, eta orain arte bete egin du hori, hain zuzen ere. Kontuan izan behar da kontrol-agintaritza independente batek funtsezko zerbitzua ematen duela garrantzi handiko gai batean, halakoa baita sektore publikoan oinarritzko eskubide bat babestea. Horren haritik, gardentasunaren printzipioa betetzeko eginbeharrak honako abiapuntu hauek dauzka:

- ✓ lehenengoa, Administrazio independentea da eta, hain zuzen ere, independentziaren eta neutraltasunaren irudia eman behar du. Horretarako mekanismo hobezina da herritarrek, orokorrean eta administrazioek, bereziki, Agintaritzaren antolaketa eta funtzionamendua ezagutzea. Beharrezkoa da Agintaritzaren gastuen politika ezagutzea, orain arte egin den bezala, baita haren diru-sarrerak, entitateko arlo guztiek egiten duten jarduerari buruzko gardentasuna, bere independentzia eta neutraltasuna kontrolatu ahal izateko; horretarako zenbait gauza egin daitezke, adibidez Agintaritzaren agenda argitaratzea, gardentasunerako ataria ezarriz;
- ✓ bigarrena, entearen oinarritzko jarduerak ondorioak dauzka herritarrengan. Arauak interpretatzea, kontsultak ebaztea, zehapen-prozedurak izapidetzea, sentsibilizazio-kanpainak egitea, prestakuntza ematea eta abar, horrek guztiak eragin zuzena du pertsonengan. Horren indarrez Agintaritzak, orokorrean, bere jardueran aurpegia ematen du herritarren aurrean: argitaratu egiten ditu hartzen dituen erabakiak, irizpenak, gidak –halakoak onartzen dituenen–, txostenak –halakoak egiten dituenen– eta abar.

Hiru ezaugarri horiek (ikusgaitasuna, irisgarritasuna eta gardentasuna) gauzatzeko, zenbait tresna edo esparru ukitu beharko dira: instituzioaren web orria, intuitiboagoa eta irisgarriagoa izan dadin; egoitza elektronikoa, erabilerraza izan behar baitu, prozedurak erraztasunez izapidetu ahal izateko; agintaritza independente batek herritarrengana iristeko



erabili behar dituen sare sozialak; hedabideak, haiekin harremanetan jartzeko bide azkarrak egituratu behar baitira.



5 3. ARDATZA – Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren lege berrira egokitzea

Eusko Legebiltzarrean Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren Lege berria onartu da. Beraz, halaberrez birplanteatu behar dira orain arte Datuak Babesteko Euskal Bulegoa zenaren zeregina, antolaketa eta funtzionamendua. Zenbait alderdi hartu beharko dira kontuan, hain zuzen ere honako hauek:



1. Barneko esparruan, beherago zehaztuko denez, beste elementu batzuen artean antolaketa birplanteatu beharko da. Lege berriaren Agintaritzaren aplikazio-eremua – subjektiboa zein objektiboa– zabaltzen denez, bere ekintza-eremua ere zabaldu egingo da. Era berean, orain arte garrantzi txikiagoa izan duten beste eginkizun batzuk azpimarratzen dira, esate baterako prestakuntza edo entitatearen kanpo-jardura. Hori hala izanik, funtzionamendu-irizpide batzuk ezarri beharko dira, *ad intra*, Agintaritza lege berriak ezartzen dituen ekintza-eremu guztietara heldu ahal izan dadin. Horren haritik, hainbat jarduketa nabarmendu ahal dira, besteak beste lanpostu-zerrenda berregituratzea, monografiak berrikustea edo lanpostuak hornitzea.

2. DBEAren jardueren artean herritarrak ukitzen dituztenei dagokienez, lege berriaren indarrez Agintaritzak garrantzi handiko zereginak izango ditu. Horren adibideak dira, funtsean, zirkularrak onartzea edo sektore estrategikoetan auditoretzak egitea. Eginkizun horien baldintzapean egonik, tratamenduaren arduradunek modu batean edo bestean aplikatuko dituzte datuak babesteko arauak; beraz, Agintaritzak zorrotz bete beharko ditu bere ahalak. Horretarako, oso garrantzitsua izango da Euskal Agintaritzak lege berriaren arabera bereganatuko duen dimentsio berria ezagutzera ematea.

3. DBEAren jardura zuzenbide pribatuaren mendean dauden enteetan ere egingo da, eta baliteke ente horiei zehapen ekonomikoak ezartzea; hortaz, dosimetriako irizpide zehatzak ezarri beharko dira zehapen horiei buruz, zehatzeko ahalean barneratzen den proportzionaltasun-printzipioa zaintze aldera.

6. 4. ardatza – Hainbat sektoretako esparruetan egin beharreko jarduera



6 4. ARDATZA – Hainbat sektoretako esparruetan egin beharreko jarduera

Agintaritzaren jarduera arruntaz harago, beharrezkoa da berariazko jarduera egitea sektore jakin batzuetan; kontu handiz ukitu beharreko sektoreak dira, eta herritarrek beraiek horiei buruz interes berezia erakutsi dute.



1. Lehenengoz, osasunaren sektorea. Azken urteotan, funtsean pandemiaren ostean, argi ikusi da osasunari buruzko datuen tratamenduak garrantzi handia duela pertsonen bizimoduan. Lehenago ere herritarrek interes berezia zuten esparru horretan: galderak egiten zituzten, zenbait eskubide egikaritzen zituzten, adibidez historia klinikora irispidea izatekoa, beren eskubideak babesteko prozedurak eskatzen zituzten... Gaur egun, funtsean, hiru alderdi hartu behar dira kontuan ezinbestean, esparru horretan datuak tratatzen dituzten arduradunei buruz berariazko jarduera egiteko:

- ✓ lehenengoa, euskal osasun-sistema digitalizatzeko prozesua oraindik ere garatzen ari da. Mota horretako prozesuek dakartzaten erronka arruntez gain, egoera batzuek erronka espezifikoak sorrarazten dituzte. Alde batetik, lehenago adierazi denez, osasun datuen Europako esparruari buruzko erregelamendu-proposamenaren haritik (2022ko proposamena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren erregelamendurako) osasun datuen Europako Esparrua sortzea erabakigarria izango da euskal osasun-sistemaren informazioa kudeatzean, esparru horretan hedadura handiko tratamendu berriak egingo baitira, adibidez datuak beste herri batzuei komunikatzea. Bestetik, euskal osasun-sisteman adimen artifizialeko teknologiak aplikatzen dituzten proiektu batzuk garatzen ari dira eta, horretarako, azterlan zehatz eta xehatuak egin beharko dira.
- ✓ bigarrena, baliteke Agintaritzak kontrolatu behar izatea osasun-zerbitzuak ematen dituzten ente pribatuek egindako datu-tratamendua. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren Lege berriaren aplikazio-eremua zabalagoa izango da, eta eremu horren mende geratuko dira «persona fisikoak edo juridikoak, baldin eta tratamendua egiten bada a) letran agertzen diren administrazio publikoen eskumeneko gaietako eginkizun publikoak egikaritzeko», eta gainera «edozein eratako zuzeneko zein zeharkako kudeaketaren bidez zerbitzuak ematen



dituzten zuzenbide pribatuko entitateak, tratamenduen xedea zerbitzu horiek ematearekin lotuta dagoenean». Horren haritik interpretatu ahal da kontrol-agintaritzak bere eginkizunak eta ahalak osasun-zerbitzu publikoaz harago egikaritu ahalko dituela, kontuan hartuta –Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzko Legeak dioenez– «Euskal Autonomia Erkidegoaren menpe zuzenean jarrita ez dauden egitura sanitarioak “interes publikoko zerbitzuak” izango direla» (29. artikulua);

- ✓ hirugarrena, osasunari buruzko datuen tratamendu arruntean edo errutinazkoan gaur egun oraindik ere alderdi batzuk hobetu behar dira (historia klinikoetara irispidea bidegabeki izatea, osasunari buruzko datuak komunikatzea administrazioetan bajak justifikatzeko eta abar) eta duela gutxiko jurisprudentziak dioenera egokitu behar dira, esate baterako poliziek historia klinikoetara irispidea izateari buruz (Auzitegi Gorenaren 971/2022 Epaia, 2022ko abenduaren 16koa). Auzi horietan onenak diren jardunbideei buruz kontrol-agintaritzak zentzuzko irizpide batzuk ekarri behar ditu, oraindik ere zalantzak sortzen baitira.

2. Bigarrenez, administrazioen eraldaketa digitaleko prozesuan sar gintezke. Prozesu hori oraindik ere bilakatzen ari da, eta horren harira erronka garrantzitsuak sortzen ari dira datu pertsonalen babesaren ikuspegitik. Adibide paradigmatico bat da administrazio publikoen esku dauden datu eta dokumentuak ez aurkezteko eskubideak izan dezakeen elkarreragingarritasuna eta norainokoa. Gehienetan, eskubide hori egikaritzearen ondorioz eta ente publikoen arteko datu-fluxuaren eraginez herritar batek kaltea jasan dezakeenean, elkarreragingarritasun hori aplikatu egiten da (alderdi hori duela gutxi aztertu du Auzitegi Gorenak, polemika sortu duen epai batean edo bestean). Alderdi horretaz harago, garrantzi handiko beste ekintza batzuk ere aipa daitezke, adibidez zibersegurtasunarekin eta adimen artifizialarekin zerikusia dutenak. Zibersegurtasuna, gero eta gehiagotan ente publikoak ukitzen dituelako. Adimen artifiziala, gero eta ente gehiagok erabiltzen dutelako teknologia hori euren eginkizunak betetzean.

3. Hirugarrenez, hezkuntzaren esparrua sakonago aztertu beharko litzateke. Sektore horretan perspektiba bikoitza hartu behar da. Alde batetik, lehenago ere esan denez, Agintaritzaren jardueraren funtsezko ardatzetako bat adingabeen sentsibilizazioa da.



Horretarako eta, horrez gain, teknologia berrien erabilera adingabeen prestakuntza egokia –baita irakasleen eta gurasoen prestakuntza egokia ere– bultzatzeko, neurri batzuk hartu beharko dira: lehenengoz, ikastetxeekin lankidetzarako tresnak garatzea, lehenago esan diren prestakuntza-planak sustatzeko; bigarrenez, ikastetxeentzat material irisgarria eta erraza sortzea, adingabeek teknologia berrien erabilera zaindu behar dituzten irizpide orokorrek. Beste alde batetik, ezin da ahaztu ikastetxeek –unibertsitateek ere bai– gero eta gehiagotan informazioaren gizarteko zerbitzu-emaila pribatuetara jotzen dutela, haien tresnak edo aplikazioak askotariko helburuetarako erabiltzeko (dokumentuen biltegiak, bideokonferentziak egiteko tresnak, posta elektronikoko zerbitzua eta abar). Halako eragiketetan beharrezkoak diren bermeak zaindu behar dira, zerbitzu hori ematen duten enpresek datu pertsonalak babesteko eskubidea babes dezaten.

4. Azkenik, bereziki interesgarria da datuen babesa aztertzea segurtasunaren esparruan, eta bereziki azpimarratzea helburu hori duten kameren erabilera. Lege berriak bidea ematen du Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak esparru horretan jardun ahal izan dezan. Egitate bat ezin da saihestu, eta zera da, bideokamerak gero eta gehiagotan segurtasun-tresna gisa erabiltzen direla, baina erabilera horrek berariazko irizpide batzuen mende egon behar duela. Ez dago esparru juridiko argirik, batez ere arlo penalean datuak babesteko 7/2021 Lege Organikoa indarrean jarri zenetik. Lege horrek bideokameren erabilera ere arautzen duenez, nolabaiteko segurtasun juridikoa ekarri behar zaie euren eginkizunen barruan tresna horiek erabiltzen dituztenei nahiz herritarrei. Beharizan hori indartzen du beste egitate batek: gero eta bideokamera gehiago erabiltzen dira segurtasun-helburuetarako, eta erabiltzen diren kameretan teknologia gero eta aurreratuagoak erabiltzen dira, esate baterako «body cam» direlakoak edo bideokamerez hornitutako pistolak.

7. Arrakasta-eragile nagusiak



7 ARRAKASTA-ERAGILE NAGUSIAK

Kontrol-agintaritzek berebiziko lana dute erronka horiei guztiei aurre egiteko. Euskadin datuak babesteko agintaritza propioa edukiz bermatzen da, hurbiltasuna abiapuntu, helburuak modu zehatzago eta efikazagoan beteko direla, batez ere sektore publikoaren esparruan, kontuan hartuta gure sektore publikoaren berezitasunak.



Lehenengoz, esparru juridiko propioa dagoelako, azterketa berezitua eta aplikazio espezializatua eskatzen dituen esparrua; argi dagoenez, hori guztia modu zorrotzago batean egiteko entitate propioa behar da. Har ditzagun adibide gisa sektore publikoaren euskal legea edo zehatzeko ahalaren euskal legea; argi dago horiek ikuspegi hurbilago batetik aztertzen direla entitate propio bat edukiz gero.

Bigarrenaz, eskumen propioetan oinarrituta kudeatutako sektoreetan esku hartzen duelako DBEAK. Ekar ditzagun gogora oso sentiberak diren zenbait arlo, esate baterako osasuna, hezkuntza, zergak edo segurtasuna bera. Jakina, esparru horietan datuen tratamenduak kezka berezia sortzen du gizartean. Sektore horiek euskal entitateetan kudeatzen dira (Eusko Jaurlaritza, foru-entitateak edo udal entitateak, edo sektore publiko instituzionala); neurri horretan, ezinbestekoa da agintaritza independente propio batek arreta ematea kudeaketa horren berezitasunei eta berriazko irizpide batzuk ezartzea, ente horien beharrezanetan oinarrituta.



Hirugarrenez, DBEAK bete behar dituen eginkizunak euskal administrazioen beharrezanetara egokitu behar direlako: adibidez, zerbitzu bat bi hizkuntza ofizialetan ematea. Kontuan hartuta Agintaritzak prestakuntzako, komunikazioko, sentsibilizazioko eta abarreko zereginak bete behar dituela, funtsezkoa da harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko gai den entitate bat edukitzea.

Laugarrenez, norbaitek gai horretan euskal administrazioen interesak gordetzea berebizikoa delako, kontuan hartuta datu pertsonalen babeserako nahiz datuen tratamenduetarako beraietarako arauak nazioarteko eremuan, funtsean Europar Batasunean garatzen direla.

Hain zuzen ere, agintaritza propioa edukitzea garrantzitsua denez, funtsezkoa da neurri batzuk hartzea agintaritza horrek Euskadin datuak babesteko eskubidearen bermatzaile gisa zeregin sendoagoa izan dezan. Horretarako, zenbait neurri hartu beharko dira.



1. Garatu beharreko ekintza nagusia izango da Agintaritzaren Estatutu berria bultzatzea. Europako eta estatuko araudi berriari egokitutako Estatutu horrek orain indarrean dagoen 2005eko Estatutua indargabetuko du.

2. Beharrezkoa izango da instituzioaren eskumenak hobetzen jarraitzea, gaur egungo errealitateak dakartzan erronkei erantzun bermedun bat emateko. Horren haritik, erabat



garrantzitsua izango da teknologia berrien eta datuen babesaren arloko ezagutza etengabe eguneratzea, eta horretarako barneko prestakuntza-planak ezarri beharko dira.

3. Instituzioa behar beste baliabidez hornitu beharko da, arauak (indarrean daudenek nahiz autonomia-erkidegoan, estatuan edo nazioartean onartzen direnek –halakorik onartuz gero–) esleitzen dizkioten eginkizun guztiak modu efikazean garatu ahal izateko; hona hemen baliabide horiek:

- ✓ langileria egonkortu eta langile-kopurua handitu,
- ✓ aurrekontuetan behar beste baliabide ekonomiko eduki,
- ✓ azpiegitura eta ekipamendu egokiez hornitu: dauzkan eginkizunak egiteko independentzia nahikoa eduki behar duenez, Agintaritzak bere burua antolatzeke duen ahalmena bere egoitzaren antolaketan eta bere baliabideen kudeaketan aplikatu beharko da.

4. DBEAren barnean prestakuntzaren zeregina garatzeko sistema egoki bat ezartzea saihestezina izango da, eta horretaz Ikuskaritza eta Arlo Juridikoak arduratu beharko du, edo bestela horretarako berariazko organo bat sortuko da.

5. Komenigarria da gogoan izatea beharrezkoa izango dela DBEAren egoitza elektronikoa konfiguratzea eta garatzea, entearen beharrezkoetara egokitutako modernizazio-plan bati jarraikiz. Hala, herritarrekiko eta datu-tratamenduaren arduradunekiko harremana eta komunikazioa errazagoak izan litezke.

6. Agintaritzan egiten den talde-lana sendotu behar da. Laneko ingurunea eta lan-baldintzak egokiak izan daitezela bermatzea; langileen artean ezagutza partekatzea; Agintaritza osatzen duten arlo batzuek eta besteek azaltzen dituzten beharrezkoen arreta ematea. DBEAren egiten den lanak tipologia berezia du, txostenak, ebazpenak, irizpenak eta abar idatzi behar izaten baitira. Hori kontuan hartuta, enplegatuek horretarako ahalik eta erosotasun handiena behar dute; beraz, Agintaritzako langileen produktibitatea bultzatzeko neurriak hartu beharko dira.



7. Bere zereginak garatzean, DBEAK kanpora ere begiratu behar du. Lehenengoz, bere eginkizun guztiak garatzean euskal sektore publikoko enteekin lankidetzan aritzeko printzipioari heldu behar diolako. Bigarrenez, Agintaritzak berak ente horien arteko lankidetzarako tresnak sustatu behar dituelako, datuen babesaren arloan jardunbide onak partekatu ditzaten. Kontrol-agintaritzak bere ahal gehienak beste ente batzuekin elkarlanean bete behar ditu. Hasteko, eta orain arte egin den bezala, beharrezkoa da harremana sendotzen jarraitzea gainerako kontrol-agintaritzekin, bai estatukoarekin bai autonomia-erkidegoetan dauden gainerakoekin. Funtsezkoa da datuak babesteko agintaritzen artean komunikazioa egotea, izaera bereko arazoan aurrean baterako irizpideak ezartzeko. Funtsezkoa da, halaber, agintaritza batzuen eta besteen artean batera jardutea arazo bereziak aurrean jartzen dizkiguten sektore zehatzetan; halakoa da, adibidez, osasunaren sektorea. Bigarrenez, garrantzitsua da harremana egotea DBEAREN eta datu-babesaren arloan edo sektore publikoa digitalizatzeko lanean zeregin nabarmena izan duten beste ente batzuen artean. Hori da Arartekoaren kasua, kontuan hartuta azken urteotan kezka berezia eta bizia erakutsi duela administrazio elektronikoaren auziari buruz, baina baita administrazioei digitalizazio-prozesuetan laguntzen dieten beste ente batzuen kasua, adibidez BiscayTIKena. Hirugarrenez, datuen babesaren arloko ikerketa-lana sustatzeko oso garrantzitsua izango da Agintaritzaren eta euskal unibertsitate-sistemaren arteko harremana. Azkenik, DBEAK orain arte egin duen prestakuntza-lana garatzen jarraitzeko, garrantzitsua izango da Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin (IVAP-HAEE) duen harremana sendotzea, kontuan izanik esparru horretan zeregin nabarmena duela.

8. DBEAREN modernizazio-plana eta euskararen erabilera normalizatzeko plana prestatzea, eta horiek betetzeko behar diren bitartekoak –langileak nahiz bitarteko teknikoak– egituratzea.

Orokorrean, zera uler daiteke: DBEAREN antolaketa eta funtzionamendua hobetzen dituen neurrian (bere burua antolatzeko ahalmena, bitarteko gehiago, langileen prestakuntza handiagoa, digitalizazio handiagoa eta hobeak, kanal hobeak komunikatzeko herritarrekin, datuak babesteko ordezkarien eta tratamenduaren arduradunekin), hobeto aplikatu ahalko da Plan Estrategikoa. Horrek datuen babesari buruzko sentsibilitate handiagoa ekarriko du



herritarren artean eta sektore publikoan. Horri esker, prebentzio hobea lortuko da eskubide hori babesteko, eta Zuzenbidearen aurkako jarduerak gerta daitezela eragotziko da.

Plan Estrategikoa zenbateraino betetzen den, aldian-aldian kuantifikatu beharko da. Horretarako, lan-arlo bakoitzak urtero txosten bat egin beharko du. Txosten horretan zehaztuko da zenbat egin den aurrera Plana betetzeko, eta Plana hobetzeko proposamenak ere zehaztuko dira, halakorik balego.